



## HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK GIZA ESKUBIDE GISA: ZER IKUSPEGI DAGO NAZIOARTEAN HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN INGURUAN?

**Irakasgaia: Euskararen Arauak eta Erabilerak Arlo Juridikoan**

MAIALEN AMUNARRIZ ETA MIREN SANCHEZ URLARTE

**AURKIBIDEA:** I. Sarrera; II. Hizkuntza-eskubideak giza eskubide bezala: 1.Sarrera, 2. Oinarrizko Hizkuntza-eskubideak; III. Hizkuntza-eskubideen oinarri juridikoak nazioarte mailan 1.Hizkuntza-eskubideen Deklarazio Unibertsala, 2.Giza Eskubideak bermatzeko ekimenak IV: Euskararen egoera juridikoa; V. Ondorioak; VI. Bibliografia.

### I. Sarrera

Hizkuntzaren bitartez ikusten, sentitzen, pentsatzen eta bizitzen duguna adierazten dugu, eta ezagutza konfiguratu, gorde eta transmititzen dugu. Hitz egiteko dugun erak mundua konfiguratzeko du eta nolakoa munduaren kontzeptzioa, halakoa gure hizkuntza; biek elkar eragiten baitute.

Hizkuntza, beraz, komunikatzeko bide nagusia da eta hau horrela izanik, horiek mantendu eta babestu behar dira. Globalizazioa dela-eta, hiztun gehien dituzten hizkuntzaren nagusitasuna agerian jartzen da; hala ere, ezin daiteke ahaztu bestelako hizkuntza batzuk ere badirela eta horiek munduko aniztasun eta kultura ezberdinen isla direla.

Gutxiengo hizkuntza horien hiztunen eskubideak errespetatze aldera, eskubide multzo berezi bat sortu da: hizkuntza-eskubideak.

Hurrengo lerroetan, hizkuntza-eskubide horiek azalduko dira, abiapuntutzat hartuz, gaur egun, giza eskubide kontsideratzen direla. Honez gain, eskubideok nazioartean duten babesari erreparatuko zaio, testu eta epai ezberdinei erreferentzia eginez. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden tresna berezi batzuk aipatuko dira; eta azkenik, guztia kontutan izanik, erartortzen diren ondorioak azalduko dira.

### II. Hizkuntza-eskubideak giza eskubide bezala

#### 1. Sarrera

Testuinguru juridikoko hainbat kontzeptu bezala, *hizkuntza-eskubidea* kontzeptu zehaztugabea da, zeina etengabe garatzen den gizarteak aurrera egiten duen heinean. Gaur egun ere, terminoa zehaztear dago boterearen arabera izaten baitira eskubide hauek.

Lehenik eta behin, esan beharra dago, nahiz eta hizkuntza eskubideak gizon-emakume eta giza taldeei dagozkien, hauek ez direla horietaz jabetzen, bakarrik hizkuntza nagusien hiztunei bermatzen baitzaizkie bere osotasunean. Hau horrela izanik ere, gaur egun, hizkuntza-eskubideak giza eskubide bezala aitortzen dira eta horregatik errespetatu eta bermatu behar dira (Kasares, 2004, 19-22 orrialdeak).



Eskubideen bi multzo nagusietatik abiatuz; hau da, eskubide indibidual eta kolektiboak bereiziz; aipatzekoa da hizkuntza-eskubideak bi multzotakoak direla aldi berean, bi esferetan eragiten baitute. Zentzu honetan, bi maila bereizten dira hizkuntz eskubideetan Paula Kasaresen<sup>1</sup> aburuz:

- ✧ Oinarrizko hizkuntza-eskubideak, edonon edonori babestu beharrekoak.
- ✧ Hizkuntza eskubide arruntak, eremu geografiko jakin batean hizkuntza zehatz bateko hitzunei aitortu behar zaizkienak.

## 2. Oinarrizko hizkuntza-eskubideak

Izaera honetako eskubideak ezin dira mugatu; izan ere, eskubideok bermatzen eta errespetatzen ez badira, haiei lotutako bestelako giza eskubideak urratuko dira; hala nola, adierazpen askatasuna eta babes judizial eraginkorra. Azken batean, hizkuntz eskubideek babesten dituzten eskubideak komunitate edo hizkuntza batek bizirauteko behar dituen gutxieneko eskubideak dira. Beraz, biziraute kulturala, bera, arriskuan jartzen da behar bezala errespetatzen ez denean.

Hau jakinda, oinarrizko hizkuntza-eskubideak aztertu behar dira, kontutan hartuz, eskubideek eragin ezberdinak dituztela norbanakoengan eta giza taldeetan. Hau horrela izanik, era bananduan aztertzea proposatzen du Kasares autoreak (2004, 22-23 orrialdeak):

### 2.1. Eskubide indibidual gisa

Kontutan izan behar da, hizkuntza komunikatzeko tresna nagusia dela eta hau horrela izanik, hizkuntz giza eskubideak suposatzen du, esfera indibidualean, norbanakoak nahi duen hizkuntzan aritzeko eskubidea eta besteek hori errespetatzea, bai eta hura testuinguru ofizialean erabiltzeko eskubidea.

### 2.2. Eskubide kolektibo gisa

Ezin daiteke ahaztu hizkuntza baten komunikatzeak giza taldeak sortzen dituela eta hau horrela izanik, giza talde izaten jarraitzeko eskubidea dakar, bai eta hizkuntzaz baliatzeko, hura erabiltzeko eta garatzeko eskubidea.

## III. Hizkuntza-eskubideen oinarri juridikoak nazioarte mailan

Lehenik eta behin, Nazioarte mailan hizkuntza-eskubideen araudiak zer dioen aztertuko dugu; hala nola, 1996ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala dugu zeinak eskubide kolektibo eta indibidualak bermatzen dituen<sup>2</sup>.

Baita ere, 1945eko Nazio Batuen Gutuna dugu, eta 55. artikuluan hizkuntza arrazoiengatik bereizketak ez egiteko konpromisoa hartzen du Nazio Batuen erakundeak<sup>3</sup>.

Ondoren, 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna dago, 27. artikuluan gutxiengoaren hizkuntza-eskubidea bermatzen duena<sup>4</sup>.

1966an ere, Ekonomia, Gizarte eta Kultur Eskubideen Nazioarteko Itunean, 2. artikuluan, hizkuntza eskubideen egikaritzea bermatzeko konpromisoa jasotzen da<sup>5</sup>.

<sup>1</sup> KASARES, Paula: “*Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian: zer eskubidez ari garen eta zertan diren*”. Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak, 31.zenbakia, 2004. Deustuko Unibertsitatea, Giza Eskubideen Institutua. 22-23 orrialdeak.

<sup>2</sup> [http://www.pencatala.cat/wp-content/uploads/2016/02/dlr\\_espanyol.pdf](http://www.pencatala.cat/wp-content/uploads/2016/02/dlr_espanyol.pdf)

<sup>3</sup> [http://www.cooperacionspanola.es/sites/default/files/carta\\_de\\_naciones\\_unidas.pdf](http://www.cooperacionspanola.es/sites/default/files/carta_de_naciones_unidas.pdf)

<sup>4</sup> <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CCPR.aspx>

<sup>5</sup>

[http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/tratados\\_internacionales/eu\\_tratados/adjuntos/pacto\\_intern\\_dchos\\_economicos\\_eu.pdf](http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/tratados_internacionales/eu_tratados/adjuntos/pacto_intern_dchos_economicos_eu.pdf)



Eta, azkenik, 1992ko Hizkuntza eta Erljio Gutxiengo Nazional edo Etnikoetako Pertsonen Eskubideen Adierazpena dago, 1. artikuluan gutxiengoen babeserako neurriak hartzeko beharra jasotzen duena<sup>6</sup>.

Bestalde, Europar Batasuneko araudiari erreparatuz gero, beste hainbat hitzarmen daudela ikusi dezakegu, adibidez, Europar Batasuneko Gutuna, bere 22. artikuluan hizkuntza aniztasuna bermatzen duena.

Aipatutako araudi guzti horien artean Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean oinarrituko gara, gure gaia sakonago aztertzeko lagungarriena izango baitzaigu eta hizkuntza-eskubideei buruz aitortzen diren arauen edukia izango dugu aztergai.

## 1. Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala 1996. urtean, Bartzelonan sortu zen, Hizkuntza Eskubideen Konferentzia Mundialean, PEN klub internazionalako itzulketari eta hizkuntza-eskubideen batzordea eta CIEMEN-en (*Center Internacional Escarré per a les Minories Etniques y les Nacions*) eskutik, UNESCO-k babestuta, bere sorreraren abiapuntua gutxiengo hizkuntzen egoera eta hauek babesteko beharra helburu izanik.

Deklarazio Unibertsal hau 1994. urtean hasi zen prozesu luze baten emaitza da, konferentziak izendatutako talde profesional batek egindakoa, herrialde ezberdinetako 40 adituk buruturikoa, soziolinguistak, juristak, pedagogoak, linguistak, soziologoak eta filologoek hain zuzen ere.

Deklarazio honek komunitate bakoitzari bere hizkuntza propioa erabiltzeko eskubidea aitortzen die, baita pertsonen eskubide indibidual eta kolektiboak, izan ere, eskubide indibidual horiek errespetatuak izan daitezzen, lehenengo eskubide kolektiboak errespetatu eta bermatu behar dira.

Bestalde, Deklarazio Unibertsal honek hizkuntza ezberdinetako erkidegoak eta lurralde ezberdinen artean dauden loturak goraiatzeko, hauen bidez lurralde bakoitzaren identitatea eta kohesio kulturala garatzen lagundu baita, garrantzi handia emanez hizkuntza bakoitzari dagokion eremu sozialari.

Deklarazio honek bermatzen duen eskubide garrantzitsua hizkuntza propioaren erabilera izan arren, beste zenbait eskubide ere bermatu nahi ditu, hala nola, tradizio eta kultura bakoitzaren mantenua eta garapena, hizkuntzaren erabileraz gain.

Azkenean, Deklarazio Unibertsal honek babesten dituen hizkuntzak gutxiengoak dira, hitz horren esanahian zentratuz. Horretarako, gutxiengoak zehazki zer esan nahi duen ondo ulertu behar da, gaur egun, oraindik, oso argi ez den kontzeptua delako.

Deklarazio honek hizkuntza bakoitzari tratatu bat emateko aukera aurreikusten du, hizkuntza bakoitzaren egoerara moldatuz tratamendu hori, izan ere, hori da berdintasun printzipioak eskatzen duena, hizkuntza bakoitzari tratamendu ezberdin bat ematea, diskriminaziorik egon gabe.

Deklarazio honen bitartez, lurralde ezberdinetako hizkuntza propioak babesten dira, eta ez hizkuntza ofizial edo koofizialena soilik. Horrela, erkidego edo komunitate ezberdinetako hizkuntzek tratamendu ezberdinak jasotzen dituzte, nahiz eta estatus ofiziala duten hizkuntza ez izan. Honekin lotu nahi dena da, komunitate bateko gutxiengo hizkuntza ahal den moduan sustatzea eta ez gutxiagotzea, eta era berean, hizkuntza ofizialei tratatu mesedegarriak ez ematea gutxiengo hizkuntzen aldean<sup>7</sup>.

<sup>6</sup> <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/Minorities.aspx>

<sup>7</sup> <http://www.euskomedia.org/PDFAnt/Eleria/01/01043050.pdf>

[http://www.pencatala.cat/wp-content/uploads/2016/02/dlr\\_espanyol.pdf](http://www.pencatala.cat/wp-content/uploads/2016/02/dlr_espanyol.pdf)

<http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/cuadernosdcho/cuadernosdcho31.pdf>



Aipagarria da Namibian (Afrika) gertatu zen kasu bat, *J. G. A. Diergaardt v. Namibia*, *Comunicación No. 760/1997*. Namibiako hizkuntza propioa *afrikaans* da eta hizkuntza horren egoera estatu horretan arautu gabe zegoen, gutxiengoen hizkuntza zela eta. Ondorioz, ez zen hizkuntza ofizial kontsideratzen, hizkuntza ofiziala ingelesa baitzen. Horrek ondorio batzuk ekarri zituen, hala nola, administrazioan Namibiako herritarrei haien ama hizkuntzaren erabilera debekatu egin zen, justizian, hezkuntzan eta orokorrean bizitza publikoan. Gainera, estatuko gobernuak funtzionario guztiei *afrikaans* hizkuntzan edozein komunikazio burutzeko debekua ezarri zien, baita telefonoz hitz egiteko ere, hizkuntza zailtasunik gabe menderatzen zuten arren. Europako Batzordeak 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 26. eta 27. artikuluen urraketa zegoela kontsideratu zuen, Namibiako hizkuntza propioaren diskriminazioa eman zela adieraziz.<sup>8</sup>

26. artikulua ondorengoa dio: *“Todas las personas son iguales ante la ley y tienen derecho sin discriminación a igual protección de la ley. A este respecto, la ley prohibirá toda discriminación y garantizará a todas las personas protección igual y efectiva contra cualquier discriminación por motivos de raza, color, sexo, idioma...”* Eta 27. artikulua hauxe dio: *“En los Estados en que existan minorías étnicas, religiosas o lingüísticas, no se negará a las personas que pertenezcan a dichas minorías el derecho que les corresponde, en común con los demás miembros de su grupo, a tener su propia vida cultural, a profesar y practicar su propia religión y a emplear su propio idioma.”*<sup>9</sup>

Kasu hau ikusiz, ondorioztatu dezakegu, nahiz eta itun, lege eta arauak egon hizkuntzen berme eta babeserako, gutxiengo hizkuntzen kasuan batzuetan ez dira gauzatzen eskubide horiek, eta lehentasuna ematen zaie hizkuntza ofizialei, hitzun kopuru gehiena duen hizkuntzari, alegia.

## 2.Hizkuntza eskubideak bermatzeko ekimenak

Giza Eskubideen deklarazio unibertsalak, hezkuntza, zientzia eta kulturaren babeserako mekanismoak bermatzen ditu, beste gai askoren defentsaren mekanismoekin batera. Konbentzio Komitea eta Batzorde Exekutiboaren Gomendioek giza-eskubideen urraketan salaketak aztertzen dituzte, bai salaketa kolektibo eta salaketa indibidualak, hezkuntza, zientzia, kultura eta informazioen arloan, zehazki, 18, 19, 20, 16 eta 27 artikuluetan babesten diren giza-eskubideei buruzkoak. Batzorde hau 29 estatu kidek osatzen dute eta hauen egitekoa ez da tribunal baten papera betetzea, kooperazioa, elkarriketa eta elkar-ulertze lana burutzea baizik<sup>10</sup>.

Euskal Herriaren egoera aztertuz gero, aipatzekoa da erakunde publiko bat, ELEBIDE izenekoa, zeina Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari dagokion eta bere jardura Euskal Autonomia Erkidegoetara mugatzen den. ELEBIDE-ren helburua hizkuntza eskubideak bermatzea da. Helburu hori lortzeko Euskal Herriaren kasuan bi hizkuntza ofizial daudenez, Euskara eta Gaztelania, bi hizkuntza horien arteko oreka bat bilatzen saiatzen da. Oreka hori mantentzeko honako jardura hauek burutzen ditu: eskaera eta kexak kudeatu, informazioa eta aholkularitza jarduerak burutu, erakundeen arteko koordinazioa bilatu eta hiritarrei beste edonolako laguntzak eskaintzen dizkie<sup>11</sup>.

<sup>8</sup> PUEBLOS INDIGENAS Y DERECHOS HUMANOS, INSTITUTO DE DERECHOS HUMANOS, MIKEL BERRAONDO. J. G. A. DIERGAARDT V. NAMIBIA, COMUNICACIÓN NO. 760/1997 KASUA. [HTTP://HRLIBRARY.UMN.EDU/HRCOMMITTEE/SPANISH/760-1997.HTML](http://hrlibrary.umn.edu/hrccommittee/spanish/760-1997.html)

<sup>9</sup> <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CCPR.aspx>

<sup>10</sup> <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/Eleria/01/01043050.pdf>

<sup>11</sup> <http://www.euskara.euskadi.eus/r59-cleb/eu/>



Bestalde, Hizkuntza Eskubideen Behatokia dugu, erakunde independentea dena. Erakunde hau fundazio juridiko bat da, Gizarte Erakundeen Kontseiluak sortua eta bere helburua hizkuntza eskubideak sustatu eta bete daitezen bermatzea da<sup>12</sup>.

#### IV. Euskararen egoera juridikoa

Jakina denez, Euskal Herria Frantziako eta Espainiako lurraldeetan dago eta hau horrela izanda, frantsesa eta gaztelania dira hizkuntza ofizialak. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan Euskara ere ofiziala da; nahiz eta haren erabilera ez dagoen oraindik bermatuta lurralde guztian zehar.

Hizkuntza-eskubideen eremuan, Espainian honako testuak aurki ditzakegu:

- ✧ Euskadiko Autonomia Estatutua
- ✧ Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa
- ✧ Euskararen Erabilera Arauzkotezko Legea
- ✧ Euskararen Foru Legea

Testu hauez gain, Euskal Autonomia Erkidegoan badaude bestelako ekimen edo proiektuak hizkuntza eskubideak bermatzearen alde egiten dutenak. Haien artean, Elebide Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua<sup>13</sup> jarri du abian Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Honek, EAE-ko bi hizkuntza ofizialen artean benetako oreka lortzea du helburua.

Ildo berari eutsiz, gogora ekarri nahi da ere, jada esan bezala, Donostian herritarren hizkuntza-eskubideak bermatze aldera Protokoloa sortu dela: Hizkuntz Eskubideen Behatokia.

#### V. Ondorioak

Behin gaia aztertuta, agerian jartzen da gaiaren konplexutasuna. Argi dagoena da nahiz eta nazioartean edo estatu mailan hainbat testu egon eta horiek lotesleak izan, hizkuntza-eskubideak modu eraginkor eta errealean bermatzeko bide luzea falta dela oraindik ere.

Hau horrela izanik, ahalegina egin beharko litzateke hizkuntza gutxitu horiek gal ez daitezen, munduko kultura aniztasuna mantentzeko. Hau posible izan dadin, baliabide berriak sortu behar dira hizkuntzen eskubideak hobeto bermatzeko, diskriminazioa jasaten duten gutxiengo hizkuntzen alde egoera benetan aldatzeko eta estatuetakoa gobernuen boterearen esku soilik ez egoteko gutxiengo hizkuntzen egoeraren aldaketa hori.

Amaitzeko, aipagarri dugu Donostian aurkeztu zen Protokoloa, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa, alegia. Helburu du komunitateen arteko errespetua eta errespetu hori lortzeko gizartearen bizikidetzeta eta ongizatea lortzea. Proiektu honekin gutxiengo hizkuntzen eskubideak bermatuko dira eta mundu mailan hizkuntza guztien berdintasuna lortzeko aurrera pauso bat izango da<sup>14</sup>.

<sup>12</sup> <http://www.behatokia.org/>

<sup>13</sup> 150/2008 Dekretua, uztailaren 29koa, Elebide sortu eta kontsultan, iradokizunen eta kexen araubidea ezartzen duena. Webgunea: [http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14414/eu/contenidos/informacion/elebide\\_nortzuk/eu\\_elebi\\_no/elebi\\_no.html](http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14414/eu/contenidos/informacion/elebide_nortzuk/eu_elebi_no/elebi_no.html)

<sup>14</sup> [http://protokoloa.eus/es/?page\\_id=296](http://protokoloa.eus/es/?page_id=296)



## Bibliografia

- URRUTIA LIBARONA, Iñigo: “*Hizkuntza eskubideak eta euskara hizkuntza sisteman*”, UPV/EHU. Ekonomia Zientzien Fakultatea, Lehendakari Agirre Etorbidea, 83. 4~8015 Bilbo.
- BERGARA, Ander: “*Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean*”, P.Francisco de Vitoria, Giza Eskubideen Saila. Arartekoa, Vitoria/Gasteiz, 1996.
- KASARES, Paula: “*Hizkuntza eskubideak Euskal Herrian: zer eskubidez ari garen eta zertan diren*”. Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak, 31.zenbakia, 2004. Deustuko Unibertsitatea, Giza Eskubideen Institutua.
- AIERDI, Xabier eta URANGA, Belen: “*Euskara, immigrazioa eta hizkuntza eskubideak: Lan jardunaldiaren inguruko gogoetak*”, Bilbo, Barceló Nervión Hotela, 2007ko azaroak 29. Amarauna - Unesco Etxea. ISBN: 987-84-9860-087-2.
- IRIONDO ARANA, Xabier: “*Hizkuntza eskubideen babes juridikozionala nazioarteko eta Komunitateko ordenamenduetan: Jurisdictional protection of the right to language in the international and EU law*”. HAEE-IVAPEko teknikaria, Wellingtongo Dukea, 2. BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 15-21].
- BERRAONDO, MIKEL: *Pueblos Indígenas Y Derechos Humanos, Instituto De Derechos Humanos*, [HTTP://HRLIBRARY.UMN.EDU/HRCOMMITTEE/SPANISH/760-1997.HTML](http://HRLIBRARY.UMN.EDU/HRCOMMITTEE/SPANISH/760-1997.HTML)

### Webgune interesgarriak:

- <http://www.behatokia.org/>
- [http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14414/eu/contenidos/informacion/elebide\\_nortzuk/eu\\_elebi\\_no/elebi\\_no.html](http://www.euskara.euskadi.eus/r59-14414/eu/contenidos/informacion/elebide_nortzuk/eu_elebi_no/elebi_no.html)
- [http://www.pencatala.cat/wp-content/uploads/2016/02/dlr\\_espanyol.pdf](http://www.pencatala.cat/wp-content/uploads/2016/02/dlr_espanyol.pdf)
- [http://www.cooperacionspanola.es/sites/default/files/carta\\_de\\_naciones\\_unidas.pdf](http://www.cooperacionspanola.es/sites/default/files/carta_de_naciones_unidas.pdf)
- <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/CCPR.aspx>
- [http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/tratados\\_internacionales/eu\\_tratados/adjuntos/pacto\\_intern\\_dchos\\_economicos\\_eu.pdf](http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/tratados_internacionales/eu_tratados/adjuntos/pacto_intern_dchos_economicos_eu.pdf)
- <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/Minorities.aspx>
- <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/Eleria/01/01043050.pdf>
- <http://www.deusto-publicaciones.es/deusto/pdfs/cuadernosdcho/cuadernosdcho31.pdf>